

# Udal talde politikoaren iritzia



GETXO = JASANGARRITASUNA

Horixe da Getxorentzat nahi duguna: jasangarritasuna ingurumenean, jasangarritasuna gizartean eta jasangarritasuna ekonomian. Getxon bizi-proiektu bat garatu nahi dugu.

FB orria: EAJ PNV Getxo / EAJ PNV  
Instagram: @eajpnvgetxo



## AISIALDIKO ZENTROA POLIGONO GORRIAN

### Centro de Ocio Cultural "Polígono Rojo"



Gobernu-taldea aspaldi ahaztu zen Getxoko auzo batzuek. Auzo horietako bat Algortako Poligono Gorria da, argi eta garbi. Gure ustez, sasoa da Getxoko gainerako tokietan eskaintzen diren arreta eta zerbitzuak gune horretan ere eskaintzeko. PPko kideok aspalditik proposatu dugu abandonatuta eta gune horretan dagoen 430 metroko eraikina aisialdi nahiz kulturako zentro bihurtu

dadin. Espazio horretan honako hauek egongo dira: arretarako udal-bulegoa, aisiarako eta jolaserako gunea, kulturagunea, zeinak ordenagailu eta ikasketagelak izango baititu, erabilera anitzeko hainbat gela, eta komun publikoak. Gobernu-taldeak gure udalerriko proiektu ugari geldirik mantentzeko erakutsitako utzikeriari eta geldotasunari amaiera emateko unea heldu da. #esnatuGetxo

## ehildu

## TURISMO JASANGARRIA BULTZATUKO DUEN EREDUAREN ALDE

Apirileko bilkuran EH Bilduk hiru mozio aurkeztuko ditu. Alde batetik, Udal Gobernuari eskatuko diogu umeen aisialdi eskaintza areagotzeko: Algortan ludoteka bat irekitzea, txikiguneak sortzea auzoetan, aterpea duten parke gehiago (eta gaur egungoak hobetzea haizea eta euriarekin bustitzen direlako), kaleko egitaraua indartzea eta abar. Urtero bezala, Azkorrhigaz lotuta mozioa aurkeztu dugu, ea oraingoan onartzea lortzen dugun. Ibarbengoa-ko geltokiagaz autobus-zerbitzua lotzea proposatu dugu; bizikletak alokatzeko zerbitzua bertaraino iristea; eta Goienetxeko estartan aparkatzea galaraztea, bertako auzokideei arazorik ez sortzeko. Azkenik, gure hirugarren proposa-

mena gurutzantziekin lotuta dago. Aurten iragarri dute 80 baino gehiago izango direla Getxoko portura helduko direnak, baina ez digute esan horrek zer nolako eragina izango duen gure herriko ekonomia eta ingurumenean. Azken kruzeroa ez zen 10 ordu ere egon portuan, eta 30 autobusek bidaiari guztiak eraman zituzten itsasontzitik irten eta berehala. Horregatik, EH Bildutik eskatu dugu gurutzantzien etorrera erregulatzea eta mugatzea; Getxora etortzekotan dendari txikiak mesedegarria izatea; eta ingurumen-tasa kobratzea, kostaldetan duen eraginagatik. Zalantzarik gabe, jasangarriagoa den bestelako turismo-eredua behar dugu. Info + getxo.ehildu.eus.

## PSE-EE PSOE

## ETXEBIZITZA ESKURATZEKO KONPONBIDEEN BILA

Getxoko PSE-EE alderdiko bozeramaileak, Carmen Díazek, nabarmendu du garrantzitsua dela **gure gazteen** eta zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuen **etxebizitza eskuratzeko aukerak hobetzeko** tresna berriak ezartzea. Horren ondoren, adierazi du pozik dagoela sozialistek **Etxebizitzaren Legea onesteko** Madrilen lortu duten akordioagatik; izan ere, horri esker, Alderdi Sozialistak ere sustatu zuen Euskal Legearekin eta sozialisten taldea **amaitzen dabilen Etxebizitzaren Udal Planarekin** batera, **konponbide berriak lortuko ditugu Getxorako**, geroz eta zaharkituago dagoen udalerrirako, alegia,



non gazteek alde egin behar baitute **etxebizitzaren prezioa altua eta gure soldata urria izateagatik.**



## ETXEBIZITZA: GETXOKO LEHENTASUNA

EAJ eta PSEren Etxebizitza Plana heldu da, atzerapenarekin eta HAPOTik bereizita, zeina oso bilkuran jorratu baita jada. Oso beharrezkoa da, eta, horren bidez, uste dugu Getxon dauden etxebizitza-premia handiei konponbidea emateko neurriak hartu behar direla. Alabaina, horren gaineko eztabaida eta zuzenketak hurrengo legegintzaldian egin behar dira; bestalde, hura abian jartzea HAPO berriaren menpe dago, eta herritar ugari agertu dira plan ho-

rren aurka, modu nabarmenean. Berriz adierazi nahi dugu epe luzerako politika publikoak izan behar ditugula, parte-hartzea barne hartzen dituztenak eta konponbidea emango dietenak bai Getxoko alokairuaren prezio altuari, bai herritar gazteak udalerritik joateari. Udazkenean, hutsik dauden etxebizitzak mugiaraztearen aldeko erabakia hartu zuen Udalbatzak; hala ere, Gobernuak hura gauzatzeko zain jarraitzen dugu.